

Noaia!!



Kopa irabazi du
nesken eskubaloï taldeak



Igandean Zubietan
Eskola Txikien Festa

Alkartasuna Likartea
Baserriar Kooperatiba
alkartasuna@euzorbi.com
Ugarte Industrialedea 17
☎ 943 361 114



Albisteak iruditan !!

Zubietako frontoia, jolas-parke

Udaberriarekin batera iritsi ohi dira Plis, Plas, Txalo eta Jolas izenarekin antolatzen diren ekitaldiak. Haur eta gaztetxoei eskainitako zikloa ondo baino hobeto hasi da aurtan. Irudia pasa den larunbat arratsaldekoa duzue. Zubietako frontoia jolas-parkean bihurtu zen. Kiliminska animazio taldeak prestatu zituen jokoetan, haurrek ez ezik, gurasoek ere jolasean aritzeko aukera izan zuten. Hurrengo ekitaldia, larunbat honetan Kalezarren. Kiko eta Koko pailazoak plazan izango dira arratsaldeko 17:00etan.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

DUELA 10 URTEKO UHOLDEAK _____ **8. OR.**

ESKOLA TXIKIEN FESTA ZUBIETAN _____ **10. OR.**

KIKI ETA KOKO PAILAZOAK KALEZARREN _____ **12. OR.**

OSTIRAL HONETAN HITZALDIA SUTEGIN _____ **13. OR.**

DENBORAPASAK _____ **14. OR.**

ESKUBALOIKO NESKAK GARAILE KOPAN _____ **15. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Kanpoko itxura

Kanpoko itxura, janzkera, norberaren ispilu dela ez nuke Kesango, baina nolabaiteko informazio iturria badela argi dago. Nork ez du laguna, ikusi orduko, goitik behera begiratu, lotsagabe ia?

Begiratu horren helburua nolabaiteko informazioa eskuratzea litzatekeela deritzot, kuriosoak baikara izatez gizakiok; “atzoko-arekin etorri da” (atzoko arropa berarekin, alegia), “galtza berrik”(ez da galdera, afirmazioa baizik)...

Kontua kontu, pasa berri ditugun hauteskundeetako hautagaien argazkiak ditut begi bistan, maiatzaren 18ko NOAUA!k argitaratutakoak, alderdi politiko ezberdinen propagandan azaltzen direnak.

Galdera da, nortzuk zuzentzen dute alderdietako marketing-a?, nahitaezkoa al da hautagaien argazkia azaltzea?, ez al dira konturatzen zenbait mesederik ez diela egiten?

Kontuz! kanpoko itxurarekin ari naiz, subjektiboa zeharo.

Alderdi ezberdinen propaganda orriak moztu eta sukaldeko mahai gainean zabaldu ditut. Argazkien hondoetan kolore gorria, txuria eta berdea dira nagusi, komo tira la bandera!!!

Janzkeran kolore beltza da, orokorrean, grisa eguraldia, oso grisa, orokorrean.

Liderretako bat pauso bat atzerago kokatu da, gorenena, hala

ere, guztien artean. Sport moda da nagusi, bakeroen arrakasta, mosketeroren bat ere ageri da tartean. Sozialista moduan, panazko amerikana marroi iluna aukeratu du batek argazkiko, pikodun txaleko beixa azpitik, galtzekin “a juego”. Nahiko itxura obsoletoa ageri du, besteengandik pauso bat aurrerago kokatu da.

Eguzkipean ateratako argazki bakarra dago, talderik koloretsuena bistara. Liderraren alkandorak plantxatu bat merezi zuen.

Zenbait hautagaien begiratu galduak despistatu egiten du, lehen komunioko antzeko irudia aukeratu du estudioan ateratako argazki bakarreko alderdiak.

Inork, okasiorako edo, bizarra luzatzen utzi du eta hautagai batzuen buruek dizdira egiten dute alopeziagatik. Hautagai batzuek argazkirako eskuekin zer egin ez zekitela ibili dira; patriketan batzuk, zintzilik besteek...ikuslearen bistarako besoak gurutzatzea ez omen da oso egokia, mugak jartzen ditu.

Aipamen berezia merezi du Photoshop-ak, izan ere, ai Photoshop-ik ezpaleo...nola ulertu argazki batean hanken kopurua bakoitia izatea?

Gure hautagaien barruko itxura ezagutu nahi duenak irakurri ditzala 280. aleko elkarrizketa pertsonalak, galerik ez dute.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

NOAUA!ri

NOAUA! 282. zenbakiko 10. orrian, Usurbilen aurkeztu diren alderdi bakoitzak jaso dituen emaitzen azterketa bat egiten da eta Batzar Nagusietara aurkeztu diren usurbildarren artean “Luis Mari Ormaetxeak bakarrik lortu du eserlekua” esaten da.

Honi buruz esan nahi nuke; EAE-ANV alderdiak Batzar Nagusietarako 3

eserleku lortu dituela eta Ormaetxeak (eserlekua onartzen badu) EAE-ANV alderdiari dagokion eserlekua bereganatuko lukeela, zeren EAK eskualde honetan (EAE-ANV-k lortu dituen botuak kontutan izanik) eserleku bat bakarrik lortu du eta Ormaetxea EAren zerrendan 2. baitoa.

Beraz, orain arte Usurbilgo Alkatetzak

rekin egin duen bezala, (lapurra deitzea gehiegi dela esango du) Alderdi Lege Antidemokratikoan babestuz, berriro, ilegalizazioak pozoindutako eserlekua bereganatuko luke. Zer hitz erabili behar da horrela jokatzeko duenarekin? Bakoitzak pentsa dezala, baina nik goian aipatu dut.

Orkatz

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: ekainak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 11.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Ostiral honetan amaituko da Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea

Zumarte musika eskolako ikasturtea amaitzear dago eta arduradunak dagoeneko hurrengoari begira daude. Hori dela eta, aste honetan zabaldu dute 2007-2008 ikasturteari dagokion matrikulazio epea.

Astegunetan, goizez 10:00-13:00 artean eta arratsalde, 16:30-19:30 artean izena eman daiteke eskaintza zabal baten barruan: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoinua, pianoa, txistua, kitarra, flauta, alboka, informatika musikala eta talde instrumentalak. Azken eguna, ostirala, ekainak 8. Informazio gehiago 943 371 594 telefono zenbakian.

Bestetik, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek antolatuta Musikaldia ospatu zen Erandion pasa den maiatzaren 26an. Herriko zortzi bat guneetan banatuta, musika eskoletako ikasleek emanaldiak eskaini zituzten egun osoan zehar. Mota guztietako musika eta taldeak izan ziren bertan. Euskal Herriko musika eskola

ugarik parte hartu zuten; tartean ziren Zumarteko bi trikitilari talde ere.

Musikaldia Usurbilen ospatuko da 2009an

Beste jaialdi askotan egin ohi den bezala, Erandion bi urtero ospatzen den musika jaialdia non ospatuko zen jakinarazi zen. Musika Eskolen batzordeak dagoeneko erabakia hartu du eta musika eskolei horren berri eman zaie. Lekukoa Zumartek eta beraz, Usurbilek jaso du. 2009ko maiatzean Musikaldia herrian izango



ZUMARTE MUSIKA ESKOLARA JO
BEHAR DA MATRIKULAZIOA EGITERA.
TELEFONOA: 943 371 594.

da. Zumartek 25 urte beteko dituen garaian.

Ikasturte amaierako kontzertuak, begibistan

Kontzertuak, Musikaldia 2009, matrikulazio garaia... Albiste asko eman ditu azken egunotan Zumarte Musika Eskolak. Ezin aipatu gabe utzi ikasturte amaierako kontzertuak. 2006-2007 ikasturtea laster bukatuko da eta, ohi bezala, zuzeneko emanaldiak eskaini eta gero hasiko dituzte udako oporrak.

EKAINAK 19, ASTEARTEA
Zumarteko abesbatza eta talde instrumentalak. 19:00etan Sutegin.

EKAINAK 20, ASTEAZKENA
Zumarteko abesbatza eta talde instrumentalak. 19:00etan Sutegin.

EKAINAK 21, OSTEGUNA
Musika Txokoko ikasleak (4-7 urtekoak), abesbatza eta talde instrumentalak. 18:00etan ikastolako aretoan.

Patri Jatetxea

K./nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Oländegja - Gozotegja

LABE-GOXO

teilatua eta fatxadak

JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA

**943 365 095
609 068 111**

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 361 106

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Aspaldiko!!



Duela egun batzuk, lehengusuen arteko bazkaria izan dugu. Ez ginen gustura atera handik ongi bazkaldu genuelako bakarrik, aspaldian ikusi ez genuen jendearekin solasean aritu ginelako ere bai.

Ez dakit zuen familietan ze maiztasunekin elkartzen zareten, baina gure kasuan, hiletetan, ezkontzetan eta urtean behin egiten dugun bazkari horretan ikusten dugu elkar eta oso entzuna den "aspaldiko" hitza askotan errepikatzen dugu.

Hain gutxitan elkartzeak pixka bat tristea dirudi baina gure izeba-osabak Gipuzkoa guztian sakabanatuta daude; Azpeitian, Tolosan, Beasainen, Donostian, Anoetan, Legazpian... Beraz, nahiko zaila da, kasualitatea iruditzen zaigu osaba-izebekin zein lehengusuekin kalean topo egitea.

Bere alde ona ere badu. Ia urte osoan ikusten ez garenez, asko izaten dugu elkarri kontatzeko eta ustekabeen familia handitzen ikusten dugu. Ni Usurbilen asko ibiltzen ez naizenez, kontaktu dizuedan hau ez zait lehengusuekin bakarrik gertatzen. Txikitan ikastolan batera ikasitako jendearekin ere gauza bera gertatzen zait. Zer egingo diogu ba!! Urte askoan mantendu dezagula ohitura hau eta ikusi arte!!

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Negutegi efektua ote?



Nork esango luke San Joanak gainean ditugula? Ia nabaritzen hasten den eguraldi aldetik bestela!!! Dagoeneko ekainean gaude!! Eta oraindik ez dugu neguko arropa alde batera utzi, "Negutegi efektua" deritzona izango ote? Tamalez honela izango dela iruditzen zait. Baina benetan mundua sortu zenean

bezala gertatuko ote da? Ikaragarritzko leherketa batekin dena amaitu eta osteratu mundu berri bat? Gai serioa da benetan, gure eta gure ondorengoen biziaz ari gara, munduko punta guztietan bizi garen biztanle bakoitzari buruz ari gara eta serio hartzekoa dela iruditu beharko litzaike guztiei!! Metodo alternatibo asko daude gure ingurua horrenbeste ez izorratzeko. Bada hor adibidez alga moduko bat CO2.az bizi dena eta ez al da hori ikaragarritzko ikerpe-na!! Ikertzen ari dira oraindik baina auskalo noiz jarriko den erabilgai, izan ere ez da aberastasun handiak emango dituen zerbait ez? Orduan ez dago presarik.

Eta honela jarrai nezake gauza asko aipatzen baina guztiok dakigun zerbait da. Beraz, zertarako errepikatu!!

Ondo pasa jaiak eta hurrengo arte!!

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Hauteskundeak Kalezarren



Berriro ere hemen nauzue nire auzoko kronika idazteko asmotan. Oraingoan lehenik eta behin Ezker Abertzalea zoriondu nahi nuke gure herrian hauteskundeetan izandako emaitza positiboagatik. Gure herrian zortea izan dugu ANV-ri bozkatzeko aukera izan dugulako, dakizuen bezala beste herrietan ez baitute aukera hau izan. Nahiz eta lau urte pasa diren, Ezker Abertzaleak parte hartu ez duela Usurbilgo udalean, ilegalizazioa dela eta eta beste alderdien borondate falta dela eta, oraingo hauteskundeetan ere auzo guztietan irabazi du. Gure auzoari dagokionez emaitzak ondorengoak izan dira: ANV-k 337 boto jaso zituen, EA-k 190, Aralar-ek 161, PSOE-k 95 eta PNV-k 66. Emaitza hauek ikusirik gustura egon gaitezke, alde batetik ANV-ren emaitza ona dela eta, bestetik, alderdi espainolen botu jaitsiera dela eta.

Hau dena komentatu ostean, San Juanak gainean ditugula gogorarazi nahi dizuet, nahiz eta badakidan iadanik guztiok festen usainean ibiliko zaretela. Besterik gabe, ondo ondo ibili eta hurrengora arte.

ATXEGALDE

IONE EIZMENDI

Etxebizitza berriak

Usurbildarrontzat oso berezia izaten da maiatza, ekitaldiz betea. Eguraldiak asko lagundu ez duen arren, konformatu egin behar. Kexatzeak ez du balio ezertarako.

San Joan hilean sartuak garenez, ea eguzkiak gehiago gozatzen gaituen. Uda ere aurrez aurre datorkigu konturatzerako, eta jaiak ere hasi San Antoniotan eta berehala bata bestearen atzetik Santixabelak arte. Oporrak hartzen dituenak izango du non gozatua.



Beste gai batera aldatuz, gure auzo honetatik kaxkora abiatuta obrak edo eraikuntza berriak ditugu begi-bistan. Zenbat etxebizitza! Berdegune gutxirekin geratuko gara inguru honetan! Erosi nahi duenak ere poltsiku beroa beharko du gero.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Eskubaloia ren festa



Gure auzoko eskubaloizelaiak, orain dela gurte batzuk zuen bizitasuna ez duela badakigu, baina ezin ahaztu betidanik bizi izan dugunok, auzoan garai batean nola bizitzen zen eskubaloia. Kiroldegia ireki zenean eskubaloia auzotik joan zitzaigun, baina asko izan gara berarekin herrirantz hurbildu garenak.

Aurten ere eskubaloiko denboraldia bukatu zaigu eta Santueneko txoko honetatik direktibo, entrenadore, jokalaria, guraso eta oro har parte hartu duen jende guztiari zorionak eman nahi nizkioke.

Urte asko daramatza eskubaloiak gure herrian eta normala denez urte onak eta txarrak pasa ditugu. Azkenekoak nahikoa zailak izan direlarik, orain pozez ikusten dugu auzoari eta herriari hainbeste eman dion kirola garai onenera bueltatzeko bidean dela. Igoera fasea jolastu da seniorretan, liga txapelketa jubeniletan, kopa kadete nesketan eta merituhandiko laugarren postu bat kadete mutiletan. Pozteko denboraldia izan da, baina niretzako garrantzitsuen Oiaro betetzea eta kantera berreskuratzea izan da. Larunbat arratsaldean festa galanta izango da kiroldegian denboraldia agurtzeko eta bertara hurbiltzeko gonbidatzen zaituztet.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Udaberria



Jada ekainean sartuak gaude eta arraroa badirudi ere, maiatza eta ekaineko hasiera hau behintzat ez dira ohituak gauden udaberriaren islada garbia izan. Maiatza goibela izan dugu eta ez dut uste inor euriaren faltaz kejavu denik. Sagardo eguna ere euripean iragatea tokatu zaigu aurtengoan. Jendea kexu da eguraldiaz eta sarri ahaztu egiten zaigu horren aurrean ezer gutxi egin dezakegula. Ezin gizakiak eguraldia kontrolatu....eta eskerak!

Amaitzeko egun gutxi falta zaizkion urtaro honek, gure animo egoeran eragiten duela dioten adituak ere badira. Datuen arabera, udaberrian eta udazkenean antsietate kasuen, depresio kasuen eta izu atakeen igoera nabarmen bat ematen da. Sexuari dagokionez, emakumeengan gehiago ematen omen da, izan ere, emakumeek barne eta kanpo aldaketak hautemateko gaitasun handiagoa dute.

Hau guztiaz gain, nabaria da udaberriak efektu psikologiko handia sortzen duela eta horretarako gure inguruan erreparatu besterik ez dugu. Izan ere, udaberriak berekin dakartza kolorea, berotasuna eta esatera zaharrak dioen modura: "La primavera la sangre altera".

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Aginagan ere eskubaloia

Zorionak eman beharko dizkiegu gure herri txiki honetako hiru gaztetxo hauei, Maddi Zubeldia, Jokin Pagola eta Manex Zubiriari. Hirurak daude murgilduta eskubaloian eta Gipuzkoako Alebin mailako txapelketan finalaurrekora iritsi dira.



Donostiako Bidebieta auzoan jokatu dituzte azken partidak, baina galdu ala irabazi, beren familiaratekoek eta lagunek berdin ospatuko dugu: urtean zehar egin duten lanak merezi du eta.



Eta zorionak ematen hasita, eskerrak ere merezi dituzte gaztetxo hauek eduki dituzten hiru entrenatzaileek ere, Eñaut Lasarte, Martin Larrañaga eta Jon Begiristainek. Animo, beraz, guztiei eta segi lanean.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

10 eta hamaika

Zubietar askok daukagu hilaren 10a markatua, agendetan baino, buruan. Batzuei, eskola txikiko gurasoei, 10 horrek hamaika buruhauste ekarri dizkigu azken hilabeteotan eta, bejondeigula!, irabazi dugu zerua (talasoterapia saioa bai behintzat).



Ekainaren 10ean hamaika bizilagun ariko dira festan laguntza ematen eta aurrez mila esker! Eta, aizu, oraindik ere nola lagundu ez badakizu, zatoz lasai eskola txikiko gurasoongana.

Hilaren 10ean bertan herri batzarkide kargua hartuko duzuen bost herritarrok, Joxemi, Unai, Karmele, Imanol eta Eñaut, zorionak eta animo zuek!, hamaika erronkari heldu beharko diozue-eta biharamunetik aurrera.

10era arte kargua bete duzuenok, berriz, jaso ezazue herritar guztion eskerrik beroena azken lau urte zailetan egin duzuen lanagatik. Bejondeizuela!

Hamaika aldiz erabili dut kronikarako txoko hau kexe-tarako eta, kontxo, atseginagoa da hitz ederrak esateko erabiltzea, gustatu zait... Hobe zubietarren aldarrikapenak ni baino kronikagile boteretsuagoa den Irubietako horri uzten badizkiot, bide luzeagoa egingo dute...

Ura, lubizia... hondamendia

1 1997ko uholdeak nekez ahaztuko ditugu. Duela gutxi izan zela dirudi. Baina hamar urte pasa dira. Usurbilen ez ezik, inguruko beste herrietan ere kalte ugari eragin zituen eurijasak. Ezbeharraren berri emateko, 1997ko ekainaren 7an argitalpen berezia plazaratu zuen NOAUA!k. Orri honetan, orduan plazaratu genuen kronika eta hainbat argazki bildu ditugu. Eta aldameneko orrian, orain arte argitaratugabeko hainbat irudi.

“1997ko ekainaren 1ak ez zuen gauza onik ekarri. Goizean goizetik egindako euriak eta 8:00etatik 9:00etara botatako eurijasak ederki astindu zituen herriko hainbat auzo.

Etxe-aldia urez estali zen. Ohartu baino lehenago urak bi metro inguruko altuera zuen. Kotxeak ur azpian, garajeak ere bai... famili asko eta askok jasan zituzten, eta jasaten ari dira, uholde horren kalteak.

Txokoalden, urak aurrean harrapatzen zuen guztia eraman zuen. Oraingo honetan ura ez zetorren Oria ibaitik Andatza aldetik baizik. Izugarritzko indarra ekarri zuen urak, errepidea ere deuseztatu zuen eta Txokoalde ezezagun utzi du. Jatetxeak, etxeak, akuiluak... hondamendi ikaragarria.

Eta Kalezarren zer esanik ez. Troia eta Puntapax izan ziren kaltetuenak. Lehenengoan jendeak teilatutik irtiten behar izan zuen, urak lau metro inguruko altuera hartu baitzuen. Kamioi bat eta kotxe bat desagertu ziren bertan. Puntapaxen, berriz, zubia puskatu, errepidea altxa, urak izugarritzko indarrez astindu zituen bazterrak.

Guzti honen aurrean zein izan da komunikabideen erantzuna? Usurbil ez dute aipatu ere egin. Donostia, Andoain, Pasaia, Hernani, Lasarte-Oria, Zarautz... eta Usurbilen autobusaren aipamena, besterik ez.

Hemen dituzue, bada, komunikabideetan agertu ez diren irudiak”.



Erlijio: Iñaki Izagire



Erlijio: Jon Aramburi



Erlijio: Jon Aramburi



Eskola Txikien aldarrikapena nagusituko da igande honetan Zubietan

Zubieta Eskola Txikien topalekua izango da ekainaren 10ean. Egun osoko jaia prestatu dute antolatzaileek bertaratu direnentzat. Horrekin batera, hainbat aldarrikapen zabaltzeko ere baliatuko dute; hala nola, Eskola Txikiak dituzten erronkak edota etorkizuneko Zubietak eskolarengan izan dezakeen eragina.

Iaz hartu zieten lekukoa Igeldokoei eta ordutik, lan taldetan banatuta, aurtengo Eskola Txikien jaia prestatzen lanean gogor aritu dira. Azken ukituak baino ez zaizkie geratzen. Antolatzaileek guztia prest dute igandean Zubietan ospatuko den Eskola Txikien Festarako. Eskola txikietako haurrentzat jolasak, dantzak, Joko Garbi partida edota Patxi Perezekin dantzan ikasi eta egiteko aukera aparta izango da. Koreografia ikusgarri bat ere plazaratuko dute.

Antolatzaileek herritarrek ondo pasa dezatela desio dute. “Zubietatik oroitzapen on bat eraman eta datozenak etxean bezala sentitu daitezela”, adierazi du antolatze lanetan dabilen Xabier Arregik. Eskertu egin nahi dute zubietarrek izan duten parte hartzea. Baita festarako prestatu duten abestiko egileei ere; Mal de Ojokoei. Egunean zehar, entzun ahal izango da.

Eskola, biziberrituta

Egun, une gozoa bizi du Zubietako Eskola Txikiak. Duela ez urte askora arte, ordea, egoera oso bestelakoa zen. “Urte latzak pasa ditugu, haur eskasiagatik”, adierazi du Arregik. Baina ordutik etxebizitza berriak eraiki dira, herritar gazte asko etorri da, eta haiekin, haur gehiago bertaratu da. Zubieta bizi berritu den heinean, eskola txikia ere biziberritu da eta hori guztia gainera, denbora gutxian.



FESTAN IZANGO DIREN LAU GUNEETAN ZEHAZ, ESKOLA TXIKIKO IKASLEEK JOKO EZBERDINETAN HARTUKO DUTE PARTE.

Bizpahiru urteetan zortzi ikasle ingurutik 32 bat hartzera igaro da eskola. “Eskola itxiko ez dela ziurtatua dago. Orain, agian ziurtatua ez dagoena da txiki izaten jarraituko duenik”, aipatu du Denis Elortzak.

DENIS ELORTZA

“Lehen Hezkuntza osoa
Zubietako Eskola Txikian
bertan eskaintzea
nahi genuke”

Bestalde, hezkuntza erdua bera ere finkatuta dagoela esan daiteke. Orain ez urte askora arte, Eskola Txiki batean hezteak izan zitzaizkeen zalantzak ia guztiz uxatuak daude. “Oso inguru goxoan bizi dira, beren eguneroko ingurutik oso gertu”, baieztatu du Arregik. Baina eskolaren eraikinak bera izaten jarraitzen du. Hori dela eta, azpiegitura eta espazio aldetik egokitzapenen beharrean da hezkun-

tza zentroa eta ahalegin horretan dabilta. Hala ere, ez lukete espazio hori asko handitzerik nahi, ezta desgertzerik ere. “Garen horri izateari eutsi nahi genioke”, adierazi du Arregik.

Nortasunari heldu eta erronkak gauzatzea

Direnari eutsi eta direnari eutsita, dauden ikasleentzat ahalik eta eskaintza zabalena izatea. Hain zuzen, egun, zazpi urtera arteko hezkuntza zikloa osa dezakete bertako ikasleek. Hortik aurrera, batzuek Usurbil aldera jotzen dute; besteek, Lasarte-Oria aldera. Batera edo bestera mugitu beharrik izan gabe, ikasleen bizilekutik gertu, eskaintza hori luzatu nahi lukete. “Lehen Hezkuntza osoa hemen eskaintzea nahi genuke”, adierazi du Elortzak.

Hala ere, egun duten panorama ez da Zubietarentzat desio dezaketena hoberena. Hainbat proiekturen kokagune bilakatu da Zubieta azken

aldian. Etorkizunean, besteak beste, Eskolaren eta bertako haurren eragin dezaketenak. Erraustegia adibidez. “Guretzat beldurgarria da 800 metroko distantzia izatea hala-ko mamutzar batetik eskola txikira”, gogorarazi du Arregik. Eskola herri-ko errealitatearekin erabat lotuta ageri den adibide garbia.

Eskolaren izaera bere horretan mantendu ahal izateko ere eragozpenik izan dezakete aurrerantzean. Zubietan eraikitzeak den etxebizitzaz sorta horren adibide. “Zubietak 400 biztanle izatetik 6000 biztanle izatera pasaraziko duena. Hori etortzen den egunean, eskola txikirik eta herri txikirik ez da izango”, adierazi du Elortzak.

Hurrengoa, Zerainen

Aldarrikapena eta jai giroa uztartuko dituen eguna igarota, horren balorazioa egin eta azken zereginak izango dituzte zubietarrek. Hortik aurrera, ekainaren 10eko jai egunaren ostean, eta azken egitekoak egin ostean, antolatze lanen lekukoa Goierri aldera joango da. Zerainen ospatuko da 2008ko Eskola Txikien aldeko festa.

ARITZ GORRITI

Egun osoko jaia izango da Zubietan

10:00 Festaren hasiera.

11:00 Errotazio jokoak Eskola Txikiko ikasleentzat.

1 Gunea (Eskola Txikietan)

Birziklatze-jokoak.

2 Gunea (Frontoian)

Jolas kooperatiboa; aulki jokoa, uztaiekin, haurrak kanporatu gabe.

3 Gunea (Araetan)

Herri kirolak (loko txak eta txin-gak).

4 Gunea (Errebote plazan)

Margoketa eta ur jolasak.

13:30 Lekuko aldaketa: irakasleei lore eskaintza, herriko dantza.

14:00 Bazkaria Araeta jatetxean. Herriko plazan: txekorra, sardinak, solomo otartekoak, sagardoa, izozkiak eta edariak. Nork bere otorduak ekarrita bertako mahaietan bazkalatzeko aukera.

16:00-18:00 Pottokan ibiltzeko aukera.

16:30 Patxi Perezekin dantza saio mundiala.



17:30 Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia frontoian.

17:30 Joko Garbi partida errebote plazan.

18:30 Patxi Perez.

OHARRAK

Egunean zehar: liburu eta kantaren aurkezpena, “Pausoka” batukada, trikitilariak, denda...

9:30-19:30 Gauzak uzteko kontsigna.

9:30-11:00 Hipodromotik jai gunera joateko autobusak Araetaraino.

18:30-19:30 Araetatik Hipodromora bueltatzeko autobusak.

Euro baten truke edalontzi birziklatuak.

Aparkalekuak: Araetan, Lanbide Eskolan, Astiazaranen, Hipodromoan.

Antzerki topaketak Aginagako Eskola Txikian

Aginagako Eskola Txikian ere Azabaldia dute igande honean Zubietan ospatuko den jaira joateko deialdia. Pasa den astean Antzerki Topaketetan izan zen. Bertan, bildu ziren Aginagakoez gain, Zubietan, Ereñozu, Aia eta Andatzako Eskola Txikietako ikasleak. Euskara indartu asmoz, urtero antolatzen duten ekimena da. Talde bakoitzak bertso, kantu edo antzez-

lan batean oinarritutako emanaldia prestatzen dute.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ia 200 haur bildu ziren Aginagako ludoteka gunean. Hain zuzen, leku falta izan da topaketa antolatzeko oztopo nagusia eta duela hilabete batzuk inauguratu zen Aginagako gune berriak arazo hori konpondu du. Aurtengo edizioarako eta baita hurrengoetarako ere.



AGINAGAKO IKASLEEK ESKAINITAKO ANTZEZLANEKO UNE BAT.

Larunbat arratsaldean, Kalezarren, Kiki eta Koko pailazoen emanaldia

Aurrera doa Plis, Plas, Txalo eta Jolas zikloa. Lehengo astean, "Asto bat hipodromoa" ikus ahal izan genuen Santuenean. Larunbat honetan Plis, Plaseko ekitaldia Kalezarren izango da. Kiki eta Koko pailazoen "Sustrai biziak" ikuskizuna eskainiko dute arratsaldeko 17:00etan.

Kiki eta Kokoren ikuskizun honetan, bata bestearen atzetik etorriko dira sketx koloretsuak, erritmo bizian. Malabareak, musika zuzenean, dantza, jokoak...

Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta ez da sarrera ordaindu behar. Ekitaldia Kalezarreko plazan izango da. Eguraldiak laguntzen ez badu, Kiki eta Kokoren saioa Haur Eskolan egingo da.



PASA DEN LARUNBATEAN SANTUENEAN BILDU ZIRENEK ADI-ADI JARRAITU ZITUZTEN ASTOAREN GORABEHERAK.

"Eta zergatik ez?", klown antzezlanaren Sutegin

